

Hezur nagusiko mina

— Jazinto F. Setien. —

Esaera, esaera zaharra edo errefraua esaten dena, eta esamoldea ez dira gauza bera, edonor ohar daitekeen bezala. Esaera dira adibidez, “zuhurraren boltsak bi zulo” edo “bakoitzari berea Jainkoaren legea”, baina esamolde dira “hogetabost baino dotoreago” edo eta “Astigarragako sagardogileek jakingo zuten elkarren berri”. Adibide gisa hemen aipaturiko esaera nahiz esamolde bakoitzak zer adiera duen eta zein testuingurutan erabiltzen edo aplikatzen diren azaltzea, ez da inola ere artikuluxka honetako nire eginkizuna, besterik baizik.

Esamolde bat hartuko dut eta beronen berri ematen ahaleginduko naiz. Esamoldea? Hona hemen: “hezur nagusiko mina”. Zer den hezur nagusiko mina? Horixe izaten zen baita gure galdera ere haur ginenean eta... geroago berdin.

- Hezur nagusiko mina al duzu gaur, umea?
- Zer da hezur nagusiko mina, ama? galdegiten genion segida berean.
- Alfer mina, horra, zer izango da!.

Handik aurrera, elkarrizketa bat sortuko zen, gaur egun hein batetan telebistak jaten duen elkarrizketa, alferrari eta naguari buruzko inon diren filosofiak egingez.

Zenbat bider ez ote genuen entzun halakok eta beste halako batek esandako istorioak.

Behin bai omen zeuden bizpahiru emakume (izenez aipatzen zituen gure ama zenak), eliz atarian, asteko pasadizoak kontatzen eta elkarrekin txutxu-mutxuka. Hauetariko batek, halako gaixorik zegoela esan nonbait eta besteak erantzunez:

- Bai, gaixorik! Hezur nagusiko mina izango du horrek.

Eta hirugarrengo batek, koitada samarra bera, hauxe dio:

- Ni neuk ez dut behinere izan, baina ez da oso ona izango!

Eta agian handik aurrea hezur nagusiaren kontzeptua argitzera zuzenduko zen elkarrizketa. Esamoldeko hezur nagusiak, bizkar hezurra esan nahi zuela eguneroko hizkuntza arruntean, etabar.

Bai omen ziren beste behin bi lagun zein baino zein alferragoak eta elkarrekin apostua egin zuten, zein alferrago izan. Eta bata belar gainera bere burua bota eta bertantxe etzan zen. Bestea, zegoen zegoenean gelditu zen, etzateko ere mugitu gabe. Bietarik alferrena? Zutik gelditu zena.

Bestalde, pertsona bat guztiz alferra dela esateko, gorotza edo simaurra baino alferragoa (basiagoa) dela esan ohi da. Alferrak nola lanik ez egin pentsatzea duela bere lana, edo eta sobera lan egi-teagatik alferrik galduta dagoela hau edo hura. Orain saiatu behar dela lanean, garaia pasata gero alferrik izango dela hau edo hori esatea.

Eta are luzeagoa du haria filosofia honek. Lur alferra, sagarrondo alferra esan ohi dugu, alferretxe edo alferrontzi bat da gizon hori, alfer zikin bat besterik ez, esku zuri bat.

Badugu, baita, alferraren sinonimo den beste hitz bat, nagia. Eta hala, nagia beti lanez beterik dago. Beharrezko da nagia ateratzea, nagia botatzea lanean gogotik hasteko.

Agidenez, nahikoa zabaldurik dagoen gaitza da hezur nagusiko mina gure hizkuntzaren esparruan eta... gure errealitatean, jakina. □